


Euskararen alde marka guztiak hautsiz

Euskararen IV. Maratoia orain arteko Maratoirik jendetsu eta ikusgarriena izan da. Hilabetez hilabete egindako prestaketa-lanek plaza zirrarez eta emozioz bete zuten. Zuzenean 2.100 pertsonak hartu zuten parte, baina orduoro, egunez nahiz gauez gainezka egon da Okendo plaza. Zaila da asteburu guztian sentitu eta ikusi zena laburbiltzea, baina gu argazki bidez herritarren partehartzea azpimarratuko dugu.



Gau-pasa egindakoak, etxera joateko perezaz gosaltzera hurbildutakoak, kale-garbitzaileak, Tximuako esatariak, musikazaleak... izan zituzten entzule Alboka abesbatzakoek igande goizeko emanaldian.


Larunbatean goizez eta arratsaldez Okendo plaza Jon Braunen lagunez beteta izan zen: tailerrak, jokuak, dantzak, abestiak... ikusteko aukera izan zen eta, noski, baita Takolo Pirritx eta Porrotx pailazoaren emanaldi ikusgarria ere.



Josu Zubiak, "Soberan duzuna maitasuna" programako aurkezleak, Peter-Jñaki jendeartean aurkitu eta Renotik bidalitako mezua azaldu zion bidez.



"Sorpresa, sorpresa" programako dantzarien arrakasta ikusita, zortzikoteko partaideek ere euren umore-ttanta jarri nahi izan zuten.



"Sorpresa, sorpresa" programako dantzari lirainek eta Jsabel Gemio aurkezleak herriko makina bat mutil maiteminduarazi zituzten igande goizaldeko ekitaldiarekin.



Jgande goizaldean baserriz baserri kopletan eta bertso zaharretan, gauean, berriz, doinu mexikarrean, edozein molde eta neurritan bertsotan egiteko gai direla azaldu zuten.



Krosa, talo-saltzaileak eta artisautza-erakusketa izan ziren igande goizeko protagonistak. Herritarrek egindako metak, jostailuak, paper, egur eta kristalezko gaiak... benetan ikusgarriak ziren.



Honelaxe, zortzikoteak lekukoa eskuetan hartuta bukatu zen Euskararen IV. Maratoia. Ikusleak hunkituta, zortzikoteak jendea nola agurtu ez zekiela... eta hurrengo Maratoirako gutxiago falta dela gogoratuz amaitu zen 40 orduko festa.




Parisko, Londoneko, New Yorkeko eta hainbat hiriburutako moda berria iritsi zen gure herrira Maratoiarekin batera. Argazkian ikus daitekeenez, 60ko hamarkadako eta 2.000 urteko modak datozkigu udazken eta negurako.

Ana Labaka

Antonio Urruzola

AROSATEGIA

Goikale, 12 - ☎ 36 10 62
LASARTE-ORIA



**armairuak
latexko koltxoia**

Geltoki 2 ☎- Fax: 36 66 44
LASARTE-ORIA

BOLATOKI

TABERNA

**OGITARTEKOAK
ETA
PINTXOAK**

Nagusia, 19 - Tel. : 37 18 52
LASARTE-ORIA